

GEKB Asoziazioa

GEKB Asozioa kirolean berdintasuna bermatzen duen asoziazioa da, hau da, hainbat zerbitzu eta ekintza egiten ditu kirol klubetan, ikastetxetan... Horretarako hainbat arlo lantzen ditu. Batetik, arlo legala lantzen du, izan ere, hainbat lege aldatzeko beharra dago berdintasunaren ikuspegitik eta hainbat kasutan epaiketara joan behar da, beraz, abokatuak eta aholkulari legalak behar dira. Bestetik, hainbat ikastaro eta tailer egiten dira eskoletan eta kirol klubetan berdintasunaren ideia zabaltzeko eta etorkizuneko lehiaketetan eta ekintza profesionaletan sustatzeko.